

IKASLEEN

2. zenbakia

2003ko ekainaren 12a, osteguna

ELIZATXO IKASTOLA

"Hernaniko preludioa 'txobinista' xamarra bihurtzen ari da"

■ Joxan Goikoetxea hernaniar musikari ospetsua da azken bi urteotako preludioaren antolatzailea.

Itxaso Lekuona
eta Uxue Mingo
ELIZATXO IKASTOLA

Zenek edo zerk bultzatu zintuen musika mundura ?

Zaila izaten da gogoratzen musikak benetan beste gauza guztien gainetik erakarri egiten zintuen edo ez. Badakit beste askok bezala ikastolan musika eta dantza dexente ikasi nuela eta hori oso gustokoa nuela. Bai euskal musika eta folklorea eta baita musika klasikoa edo taldeak eta kantariak ere. Musikarekiko, "esponja" moduko bat nintzen eta harrigarria da oraindik memorian dudak musika pila. Gero, udal musika eskola, kontserbatorioa eta beste guztiak etorri ziren. Bokazioa ere "autoalimentatzen" den zerbait dela uste dut.

Noiz hasi zinen musika munduan?

6 urterekin solfeoa eta txistua, 11 urterekin akordeoia, 17 urterekin irakasle lanean hasi nintzen. 18 urterekin hanbait taldeekin eta nire lan propioak egiten gaur arte.

Zerk bultzatu zintuen irakasle izatera eta ze ikasketa egin zenituen orain zauden lekuan egoteko?

17 urterekin batxilerra bukatu nuen eta, era berean, kontserbatorioko goi mailako ikasketak. Hernanin musika eskola berria martxan jartzeko oposaketak konbokatuta ziren orduan, eta ez nuen bi aldiz pentsatu. Une horretan lantxo bat edukitzea sarizat hartu nuen, ordurarte urte gogorak pasa baintuen ikasketekin. Batxilerra egiteaz gain goi mailako titulazioa, ikasketa bukaerako sari bereziarekin. Horretaz gainera bidai asko egiten nituen akordeoi txapelketak eta kontzertuak zirela. 17 urterekin "ultzera" bat izan nuen guzti horiek ezin irentsi eta. Nire lehenengo lan kontratua nire aitak sinatu zuen Hernaniko Udaletxean nik ez baintuen 18 urte kunpliturik. Orduan parre eta algarak sortu zituen nire kontratazioak. Gaur egun zera pentsatzen dut, agian, zertxobait gehiago jarraitu behar nuela ikasten eta zabaltzen. Bestetik, behin ere ez dira bukatzen bizitza honetan ikasketak eta zentzu horretan beti izan dut jakinmina eta gehiago ikasteko gogo eta jarrera ona.



Joxan Goikoetxea.

Irakaskuntza gustatzen al zaizu?

Zuk zeuk zerbait ikasi eta esperimentatzen duzun neurrian besteekin konpartitzea gustatzen zaizu eta irakaskuntzak horretarako aukera ematen dizu, ikasleei zure esperientziak irakasteko. Bizitzan denoi gustatzen zaigu baliagarriak izatea zerbaitetan eta irakaskuntzak onura hori ematen digu. Musikaren alorrean askotan zaila izaten da irakastea, oso gutxi edukitzen baitu benetan musika

kara dedikatzen asmoa eta horretarako behar den denbora. Gaurko bizimoduak ez du errazten umeez musikara sakonki dedikatzea. Oso azaletik bizi ditugu gaur egun gauzak eta alde horretatik musika irakaskuntza ez da batere satisfaktorioa.

"Nire aitak firmatu behar izan zuen nire lehen kontratua"

kola eta oraindik ere lan berri bat suertatzen zaidanean faktore hori kontuan hartzen dut,

talde edo kolaborazio horrek zein aportazio eta esperimentazio berri dakarkidan.

Zerrendan ez dut inor aurretik edo gainetik bereizten. Esperientzia bakoitza guztiz differentea izan da: Txomin Artola, Amaia Zubiria, Oskorri, Kepa Junkera, Joseba Tapia, Xabier Lete, Imanol, Paco Ibañez, Anje Duhalde, Antton Valverde, Xabier Euzkitze, Andoni Egaña, Mikel Laboa Javier Alvarez, Suso Saiz, Jorge Drexler, Diego Vasallo, L.E.Aute, Alberto Iglesias, Dulce Pontes, Noa, Alasdair Fraser & Skyedance, Bingen Mendizabal, Joan Valent, Pasion Vega...

Noiz hasi zinen ALBOKA taldean jotzen? Ze musika mota jotzen duzue?

1994an sortu genuen ALBOKA taldea. Orduan Txomin Artola ere gure artean zegoen.

Gaur egun ia 10 urte geroago Alan Griffin irlandarrak eta biok zuzentzen dugu taldea. Zuzenean zazpi musikari izaten gara taula gainean eta gonbidatu bereziren bat ere bai noizean behin. Hiru diska ditugu kalean eta beti euskal musika tradizionala nahiz guk sortutako musika jotzen dugu. Hainbat bira egin ditugu, besteak beste, EEBB, Grezia, Eskozia, Italia edo Hungarian joaz.

Noiztik antolatzen duzu preludioa?


San Joan Iragarpen kontzertuak aurten bere hamargarren edizioa beteko du. Nik aurten bigarrenengo aldiz zuzenduko eta koordinatuko dut.

Herriko musika eta ohiturak ezagutu eta ezagutaraztea oso gogokoa dut. Azkenean horrela historian nolakoak izan garen ikasten da eta gauza asko zergatik gertatzen diren edo egiten ditugun hobeki ulertzen da.

Hernani alde horretatik oso herri aberatsa da, oso aktiboa, hobeto esanda hiperaktiboa, eta bertan izan ditugun musikari, talde, ohitura eta gertakizunak oso kuriosoak eta ilustratiboak dira.

Preludioak berak Hernaniko mugak gainditu eta interes orokorrako bat sortu dezake beste herriko jendeengan. Hala eta guztiz ere "Txobinista" xamar jartzen garela onartu beharrean nago eta "Hernaniarrismoaren" kulto txiki ere bihurtu dela gure preludio hau.

LIBURU KRITIKA



SPko Tranbiaren portada eta Unai Elorriaga egilea.

Liburua: 'SPrako tranbia'

Leire Goñi
ELIZATXO IKASTOLA

Liburu hau izan da 2002. urteko Espainiako Literatur Sari Nazionalaren irabazlea, eta ordutik oso ezaguna egin da. Idazlea Unai Elorriaga Lopez de Letona da; 1973ko otsailaren 14an jaio zen, Bilbon, baina Algortan bizi da betidanik. Filologian lizentziatua da eta Labayru Ikastegian egiten du lan, itzultzaile moduan.

Eleberri hau benetan berezia da, idazlearen gaztetetasuna kontutan hartuta, gaia ez baita guztiz ohikoa: agure baten erotze prozesua kontatzen da bertan, baina maitasun eta xarma handiarekin. Lucas da bere izena eta bere ahizpa Mariarekin eta Marcos izeneko gazte okupa batekin bizi da. Lucasek bere gogoetak kontatzen ditu; bere lagun hildakoekin mantentzen dituen solasaldiak, edota bere emazte hilarekin egiten dituen pasioak... Bera konturatzen da burua gero eta okerrago dabilkiola, baina guztiz zoriontsua da, bere inguruan baititu bizirik gelditzen zaizkion pertsona maiteak. Mariak ere bere gogoetak kontatzen dizkigu: trenetik-trenera dabilen neskatxa baten ipuina, edota Lucasekin "mendira egiñiko espedizioak"... Marcosek eta Romak ere, (Marcosen andregai), beren kontutxoak azaltzen dizkigute maitasunez eta goxotasunez.

Nere ustez, oso liburu ona eta osoa da. Idazleak gazte batek agure batez asko ikas dezakeela adierazi du bertan. Gainera, pertsonaia bakoitzak gizartean gertatzen diren egoerak isladatzen ditu: Lucas, bere adina dela eta, gizartean baztertuta dago; Mariak ez du bizitza propioa, Lucas zaintzen ematen baitu bere bizi osoa, eta bere ametsak Lucasekin egiten dituen jokoen eta idazten dituen ipuinen bidez azaltzen ditu; Marcos, berriz, gizartean lekurik aurkitzen ez duen gazte bat da eta, bitartean, okupa moduan bizi da, bere gitarrarekin abestiak jotzen ditu bizitzeko diru pixka bat ateratzeko asmotan. Kontakizun xelebreak, maitasunezkoak, goxotasunez kontatutakoak eta batere espanturik gabeko erotze prozesua narratzen dira eleberri honetan, eta horrek oso liburu interesgarria bihurtzen du. □

TXOKOA

Ikasleen Txokoa kaleratzen da Hernaniko ikastola eta ikastetxeek Hernaniko Udalarekin eta Hernaniko Kronikarekin egindako elkarlanari esker. Datozen hilabeteetan jarraipena izango du.

ELIZATXO IKASTOLA

2003ko ekainaren 12a, osteguna

2. zenbakia

Hemen ditugu San Antonioak

Mailen Apezetxea eta Maider Etxeberria

ELIZATXO IKASTOLA

San Antonioak, Ereñotzuko festak, asteburu honetan hasiko dira eta festa komisiokoekin harremanetan jarri gara festen inguruko informazio zabala jasotzeko. Zuek gonbidatu nahi zaituztegu festetan parte hartzera eta hona hemen burutuko diren ekintzen egitaraua.

Hala ere, dakizuen bezela aurreko asteburuan XVIII. m. txapelketa eta pala eta esku pilota txapelketak antolatu ziren jai giroa animatzen hasteko.

Ekainaren 11an

20:00etan jaie hasiera emateko suziriak bota zituzten.

Ekainaren 12an

Goizean Irubidietan eta arratsaldean Ugaldetxon, izango da jai.

Goizean, lehenengo hamaitaketa izango da, gero bola eta toka txapelketak eta, azkenik, Imanol Lazkano eta Xabier Legarreta bertsolariak.

Arratsaldean, **17:00etatik** aurrera, pala eta esku pilotako finalak izango dira, ondoren bertsolariak eta bukatzeko erromeria Epelde eta Larrañagarekin.

Ekainaren 13an, San Antonio egunean

10:00etan, kalejira izango da. **10:30ean**, Meza Nagusia San



Dantzariak tabladuan iazko San Antoniotan.

Antonio parrokan.

12:00etan, Herri Kirolak, eta ondoren bertsolariak: Jokin Sorozabal eta Aitor Mendiluze.

Arratsaldean, 17:30ak aldera antzerkia Herriko plazan eta ondoren bertsolariak eta Joxe Legarreta Bertsopaper emanaldia izango da.

Gauean, ohitura den bezela, preso eta errefuxiatuei omenaldia egingo zaie eta jarraian musika M-n ezten eta Laiotz-en eskutik.

Ekainaren 14an, larunbatean

17:00etan, haur jaialdia eta segidan txokolatada.

19:00etan, arraun desafioa Ereñozu-Hernani, presatik Latxe birtartean. Desafio hau, lehen arraunean ibiltzen ziren Ereñotzuko gazteen eta Hernaniko arraunlarien artean izango da.

Egunari amaiera emateko, Izotz taldearen emanaldia izango da guztian zehar.

Ekainaren 15ean

07:00etan diana dultzaineroekin, hauek baserriz-baserrera ibiliko dira goiz guztian zehar.

10:30etan, Meza nagusia.

Hau bukatutakoan, Ttarla dantza taldearen eskutik emanaldia eta ondoren Ur-mia elkarteak antolatua Hernaniko sagardo goxo eta pintxoak dastatzeko aukera paregabea.

Herritik goiz guztian trikitilariak izango dira.

18:30ak aldera, bertso jaialdi handia izango da plazan: Maialen Lujanbio, Jesus Mari Irazu, Joxe Agirre, Estitxu Eizagirre, Unai Iturrriaga eta Igor Elortzaren eskutik. Azkenik, errifa zozketa eta jaiei amaiera emateko afari herrikoia.

Aurtengo jaietan ekintzarik deigarrienak, bertsopaper emanaldia, arraun desafioa eta igandeko bertso jaialdia dira, beraz, badakizue, anima zaitzete eta etorri Ereñozura. □



Santa Barbarako ermitan mezetara jendea.

Santa Barbarako ermita


Santa Barbara baserriak dauka ermitaren eta serore-etxearen jatorrizko kokaera, tontoretik 200 bat metrora. 1526an, herria zen haren patroia, 1745ean hiru aldare zeuzkan eta korua. Gerra guztiek utzi dituzte txikiziomak ermita honetan, gotorleku bezala erabili baitzen 1793ko Konbentziotik hara.

Gaur egun Santa Barbara baserria dagoen tokian, hau da, tontoretik 200 bat metrotara, kokatzen zen hasiera batean ermita eta seroraren etxea.

XVI. mendeko dokumentuetan azaltzen danaren arabera 1526an herria zen haren patroia.

Ondoren, esan daiteke gerra guztiek utzi dituztela txikiziomak ermita honetan, gotorleku moduan erabili baitzuten Konbentzioko gerratik hona, alegia, 1793tik hona.

Justo Eizagirre eta bera familia 1934an sartu ziren han bizitzera, eta beren ahaleginarekin eraiki zuten etxebizitza. Baina 1938an, Gerra Zibilekoan, kanpora bota zituzten. Itzuli zirenean, errauts bihurturik aurkitu zuten etxea, baina berriro ipini zuten zutik. Herritarrek, mendiaren tontorrean, eliza berri bat jaso zuten Santa Barbararen ohorez. Uztailean 31an San Inazioaren egunean, meza ematen da eta erromeria jendetsu bat ospatzen da ilunabarra arte.



Trikuharria.

Hernaniko trikuharriak

Hernani aldeko gure mendien inguruan megalito aroko harrizko monumentuak daude. Hauek duela milaka urte bizi izandakoen hilobi-kulturalen ezaugarri dira.

Guztiok, eta batez ere, hernaniarrok oso ezagun dugun Onddi mendiaren magalean aurki ditzakegu hauetariko batzuk. Bertan aipagarri diren harrespilak: Antxista, Etzela, Etzioko Soroa, Etzioko Tontorra, Muniskue Gaina eta Unamuno. Hauez gain Etzelako Txokoa deritzon tumulua ere bertan aurki dezakegu.

Euskal Herrian bi trikuharri mota ezagutzen dira: soilak eta txikiak, mendialdekoak, eta haran eta ordeko trikuharriak, egitura errektangularrekoak eta pasabidea dutenak. Hernaniko trikuharriak lehenengo taldean kokatu beharko genituzke, beraz, Euskal Herrian ugariago den taldean, aurkitu diren trikuharrien %95 mota honetakoa baita.

Orriaren egileak:



Maialen Apezetxea, Maider Etxeberria, Leire Goñi, Uxue Mingo eta Itxaso Lekuona.